

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Behin betiko onestea Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren jabetzako mendi publikoen larre-aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren aldaketari - OPM-ko 199 zenbakia mendi garai edo Toloño, 188 zenbakia Las Rasas Erkidegoko mendia, 189 zenbakia Kontzejuko mendia, 196 zenbakia Herrerako mendia eta 198 zenbakia Mendiluziako mendia

Korporazioaren Osoko Bilkurak 2023ko urriaren 10ean hartutako Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren jabetzako mendi publikoen larre-aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren aldaketari - OPM-ko 199 zenbakia mendi garai edo Toloño, 188 zenbakia Las Rasas Erkidegoko mendia, 189 zenbakia Kontzejuko mendia, 196 zenbakia Herrerako mendia eta 198 zenbakia Mendiluziako mendia onartzeko hasierako akordioa jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren eta horren barruan ez da araudiaren inguruko erreklamaziorik aurkeztu, akordioa behin betiko izatera igotzen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epaitegiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua arabera.

Hori guztia, egokituz jotzen den beste edozein errekurtsio aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALAREN JABETZA DIREN ONURA PUBLIKOKO MENDIETAKO LARREEN APROBETXAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA – “ONURA PUBLIKOKO MENDIA (OPM) 199 ZENBAKIA MENDI GARAI EDO TOLOÑO, 188 ZENBAKIA LAS RASAS ERKIDEGOKO MENDIA, 189 ZENBAKIA KONTZEJUKO MENDIA, 196 ZENBAKIA HERRERAKO MENDIA ETA 198 ZENBAKIA MENDILUZIAKO MENDIA” –

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ordainarazpen honen helburua da Peñacerrada-Urizaharreko Udalarenak diren hurrengo mendietako larreen aprobetxamendua eta erabilpen komunekeo ekipamenduen erabilera arautzea: onura publikoko mendia (OPM) 199 zenbakia Mendi Garai edo Toloño, 188 zenbakia Las Rasas Erkidegoko mendia, 189 zenbakia Kontzejuko mendia, 196 zenbakia Herrerako mendia eta 198 zenbakia Mendiluziako mendia. Errespetatuko dira, betiere, gaiaren gainean Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan eta aplika daitekeen gainerako araudian ezartzen diren eskumen-mugak.

2. artikulua. “Erabilera komunekeo ekipamendutzat” hartuko dira uraskak, bideak eta, oro har, baimendutako abeltzainek larreen aprobetxamendurako erabil dezaketen edozein azpiegitura.

3 artikulua. Mendiei buruzko foru arauan ezartzen den bezala, aprobetxamenduaren baime-nak ezin izango du gainditu abeltzaintza-karga onargarriaren muga, antolamendu- eta kudeaketa-tresnetan ezarriko da; edo, halakorik ezean, urteko aprobetxamendu-planetan; eta animaliak mendian egoteko gaituko du bakarrik ezartzen den artzaintza-egutegiaren barruan.

4. artikulua. Larreen aprobetxamenduak bazka baliabideen arrazoizko erabilera izango du; horrela, bateragarria izango da mendiaren gainerako erabilerekin eta dituen bestelako balioen babesarekin.

5. artikulua. Basoetan edo zuhaitzez estalita dagoen basoko aprobetxamenduaren kasuan, lehentasuna emango zaie basoko beharriari eta, zehazki, zuhaitzak kontserbatu eta birsortzeari.

II. KAPITULUA. ONURADUNAK

6. artikulua. Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko auzotarrek, edo beste batzuetakoek, larreen aprobetxamendurako eskubideak badituzte, udal-jabetzako mendiez gozatzeko jatorrizko eskubidea dute, gozamen errealeko administrazio-eskubide gisa.

7. artikulua. Udal honetako erregistroan inskribatutako egurketa unitateak larreen eta erabilera komuneko ekipamenduen aprobetxamenduaren onuradunak izan daitezke, baldin eta ordenantza honetako 11. artikulua jasotako betekizunak betetzen badituzte.

III. KAPITULUA. ABELTZAINEN ERREGISTROA ETA BATZORDEA

8. artikulua. Udal honek Abeltzaintza Erregistroa egingo du, eta, bertan, hurrengo mendien Abeltzaintza Erregistroa osatzen duten abeltzainak izango dira: onura publikoko mendia (OPM) 199 zenbakia Mendi Garai edo Toloño, 188 zenbakia Las Rasas Erkidegoko mendia, 189 zenbakia Kontzejuko mendia, 196 zenbakia Herrerako mendia eta 198 zenbakia Mendiluziako mendia:

8.1. Abeltzainek batzorde bat osatuko dute, eta batzorde horrek ordezkatuko ditu, organo aholku-emaile eta kudeaketa-laguntzaile gisa.

8.2. Abeltzainen batzordea abeltzainen erregistroko kideek osatuko dute, eta, gehienez ere, bi ordezkari izango ditu.

8.3. Abeltzainen batzordea aukeratu ondoren, horrek haren osakeraren berri eman beharko dio Udalari, bai eta kideen aldaketan berri eman ere, aldaketak gertatzen direnean.

IV. LARRATZE-ALDIA

9. artikulua. Oro har, abeltzaintza ustiatzeko baimendutako epea urte bakoitzeko maiatzaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoa izango da ondoko mendietan: onura publikoko mendia (OPM) 199 zenbakia Mendi Garai edo Toloño, 188 zenbakia Las Rasas Erkidegoko mendia, 189 zenbakia Kontzejuko mendia, 196 zenbakia Herrerako mendia eta 198 zenbakia Mendiluziako mendia.

10. artikulua. Udalak artzaintzarako aldi hori berrikusi ahal izango du, Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez eta 8. artikuluan aurreikusitako abeltzainen batzordearen kontsulta edo txostena jaso ondoren, hala gomendatzen duten abeltzaintzako eskariaren, klimatologiako inguruabar berezien, larreen egoeraren edo bestelako araberak.

V. KAPITULUA. APROBETXAMENDUAREN ARAUKETA

11. artikulua. Aprobetxamendua eskatzen duten egurketa unitateen titularrek baldintza hauek bete beharko dituzte:

A. Baldintza orokorrak.

a) Adinez nagusia eta erretiratu gabea izatea, adingabe emantzipatua edo judizialki gaitua, eta abeltzaintzan aritzea, lur propioak lantzea larre-laboreekin edo errentamenduan.

b) Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko edo larre aprobetxamendurako eskubideak dituzten beste udal batzuetako Udal Erroldan inskribatuta egotea, urtebeteko (1) erroldaren antzintasunarekin, gutxienez; halaber, sortuko den abeltzainen erregistroan izena emanda egotea. Abeltzain gazteek, ordea, ez dute zertan antzintasun baldintza bete, hala erabakitzen badu erakunde titularrak.

c) Mendiaren jabearen kanonak, ordainarazpenak eta gainerako zergak egunean izatea.

B. Berariazko baldintzak.

Gainera, larreak aprobetxatzeko baldintza espezifiko hauek bete beharko ditu:

a) Abere azienda edo funtsen titularra izatea eta Arabako Foru Aldundiaren Abere Ustiategiaren Erregistroan izena emanda egotea.

b) Peñacerrada-Urizaharreko udalerrian, adierazi diren abereentzako lurzail eta bizitoki nahiko izatea, teknikoki eta ingurumenaren aldetik egokia, behar den denboran eta agiri bidez frogatu ahal izateko moduan. Lurzail eta bizitoki horiek larre aprobetxamendurako eskubiak dituzten beste udal batzuetan ere egon daitezke; baldin eta badituzte, mendian egon ezin den aldietan, abereak non egon eta bazka-baliabide propioekin elikatzeko aukera ematen duen larre-aprobetxamendua egikartzeko. Hauek izan daitezke mendian ez egoteko arrazoiak: aprobetxamenduko espezieen geldialdi begetatiboa, berrogeialdi sanitarioa, mendiaren egoera fisikoa edo egonaldia eragozten duen beste edozein arrazoi.

Salbuespen gisa, bizitoki hori abeltzaina erroldatuta dagoen herri berean ez egotea onartu ahal izango da. Kasu horretan, honako baldintza hauek bete beharko dira gutxienez: ganadua ukuilura mugitzea ahalbidetzen duen erradioan egotea, abeltzainaren erroldatze-herritik hurbil egotea, eta aldi batean abeltzaintza-jarduerarako eta abelburuen kopurua hartzeko prest egotea.

Albaitaritza-zerbitzu eskudunen kontrolen bidez, titularrak egiaztatu beharko du larreratzeko eskubidea duten abereen presentzia, gobernu eta kudeaketa aipatutako instalazioetan. Abelburuen kopurua murrizten bada behar bezala justifikatu beharko du albaitaritza-zerbitzuen aurrean, arrazoa besterentzea izan edo istripu- edo osasun-gorabeheren bat izan.

c) Saneamendu kontrolari eta abereen mugimenduei dagokienez indarrean dagoen arauditik eratorzen diren betebeharrak betetzea; bereziki, abereen saneamendu-egoerari eta desinfektatutako ibilgailuetan garraiatzeari buruzko osasun-ziurtagiriak, bai eta horretarako ezarritako betekizunak ere.

d) Peñacerrada-Urizaharreko Udalak larreen aprobetxamendurako ematen duen baimena aurretik eskuratu izana.

e) Abereak aurretik eta banan-banan identifikatu eta markatuta izatea, organo eskudunak ofizialki onartu dituen sistemen bidez.

f) Baso berritzerako eta lehengoratzeko jarri diren itxiturak errespetatzea, bai eta suteen ondorioz hesitutako azalerak ere.

g) Norberak lurra lantzea eta abereak zaintzea, bakarrik edo titularrarekin bizi diren pertsonaren baten laguntzarekin. Soldatapeko langileak ezin ditu izan, bakarrik nekazaritza ustiatetik urtaroko eskakizunak direla-eta. Baldintza hori ez da urratutzat joko, nahiz eta soldatapeko bat edo bi pertsona izan, gerora sortutako gaixotasunaren kasuan edo aurrez zehaztutako moduan lan pertsonalarekin jarraitzea eragozten duen beste bidezko arrazoi baten kasuan.

12. artikulua. Ordenantza honen ondorioetarako, egurketa unitatetzat joko da etxebizitza berean bizi den jende-multzoa.

13. artikulua. Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 46.2. artikulua xedatutakoa bete beharko da, bai egurketa unitate bakoitzeko gehienezko abelburu kopurua zehazteko bai eta abelburuok egurketa unitateetan banatzeko ere. Egurketa unitate horiek osatzen dituzte nekazaritza ustiategietako auzokide titularrek, ustiapena jarduera nagusia izan ala ez.

14. artikulua. Larreratzeko eremuan gune erabilgarriak geratzen badira, udalak aprobetxamendu hori esleitu dezake lehiaketa bidez, ordenantza honetako 11. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten abeltzainen artean. Lehentasuna izango dute ondoko hauek: inguruko herritarrek, abeltzain gazteek eta ustiapena jarduera nagusia dutenek.

Kasu horretan, aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko kanona hauxe izango da: egurketa unitateetarako urtero ezarritako kuota halako 1,5, gutxienez.

15. artikulua. Abereak sartzeko eskaerek abeltzaintza-karga onargarria gainditzen badute, Udalak onartu beharreko abere-kopurua mugatuko du, aurreko irizpideei jarraituz eta irizpide teknikoan, sozialen eta ingurumenekoan araberako moduluak finkatuz.

Ustiategi eta/edo egurketa unitate bereko eskabideak eskabide bakarra direla ulertuko da.

Dena den, ustiategi batean egurketa unitate bat baino gehiago dagoenean edo egurketa unitate batean ustiategi bat baino gehiago dagoenean, baimen bi eman ahal izango dira, gehienez, ustiategi edota egurketa unitate bakoitzeko.

16. artikulua. Udalak urtero eskatuko dio Arabako Foru Aldundiari larreen aprobetxamendua Urteko Planean; halaber, aurkeztu beharreko egutegia aurkeztuko dio.

17. artikulua. Abeltzainek urtean larreratuko den abelburu kopurua azaltzeko adierazpena aurkeztuko dute Peñacerrada-Urizaharreko udaletxean, udalak hala iragartzen badu.

18. artikulua. Larreen aprobetxamendurako eskubidea duten onuradunek, aurretik adierazitako epean, beharrezkoak diren datuak jakinaraziko dizkiote erakunde honi, abere azienden errolda osatzeko. Hori guztiori eskatzaileak sinatu beharreko eskaera baten bidez egingo da, eta, bertan, honako datuak jasoko dira: izen-abizenak, Nortasun Agiri Nazionala, helbidea (biztanleen udal erroldaren ziurtagiria erantsiko da; bertan, inskripzio denbora agertuko da), abere espeziea eta urtean larreratuko den abelburu kopurua, belarritako-zenbakiak edo matrikula.

19. artikulua. Onura publikoko mendi hauetan -199. Mendi Garaiak edo Toloño, 188. Las Rasas Erkidegoko mendia, 189. Kontzejuko mendia, 196. Herrera mendia eta 198. Mendiluzia mendia-, larreak aprobetxatzen dituzten azia guztiek osasun eta kontrol baldintzak bete beharko dituzte. Era berean, behar bezala identifikatuta egon beharko dute animaliak erregistratzeko araudiaren arabera eta larretan edo mendietan sartzeko eskatzen diren arauen arabera.

20. artikulua. Larreak aprobetxatzen dituzten abeltzain onuradunen betebeharra izango da, halaber, "erabilera komuneko ekipamenduak" eta gainerako azpiegiturak garbi edukitzea eta horiek zaintzea.

21. artikulua. Abeltzainen bat hesiak hautsi egin direla edo beste ekiporen batek kalteren bat duela konturatzen bada, ahal bezain laster jakinaraziko dio udalari. Halaber, gaixotasun-fokuren bat antzematen badu, Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari jakinaraziko dio.

22. artikulua. Debekatuta dago honako Onura Publikoko Mendietan jatekoa banatzea: 199. Mendi Garaiak edo Toloño, 188. Las Rasas Erkidegoko mendia, 189. Kontzejuko mendia, 196. Herrera mendia eta 198. Mendiluzia mendia. Salbuespen gisa baino ez, Udalak jatekoa banatzeko guneak gaitu ahalko ditu; banaketa baimendutako lekuetan baino ezingo da egin, eta udalaren berariazko baimena beharko da.

23. artikulua. Udala erakunde kudeatzailea da honako Onura Publikoko Mendi hauetan: 199. Mendi Garaiak edo Toloño, 188. Las Rasas Erkidegoko mendia, 189. Kontzejuko mendia, 196. Herrera mendia eta 198. Mendiluzia mendia. Hori dela eta, aurkeztu diren adierazpenen datuen zehaztasuna eta egiazkotasuna une oro kontrolatzeko eskubidea gordetzen du udalkideen, teknikarien edo gaitutako langileen bitartez. Abeltzainek edo artzainek ikuskapen horiei ezingo diete oztoporik edo trabarik jarri.

Abere kopurua dela eta iruzurrak saihesteko, eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuan dauden datuekin alderatuko dira.

VI. KAPITULUA. BAIMENDUTAKO AZIENDA

24. artikulua. Ardi-, behi-, zaldi-, asto eta mando-aziendak baimenduta daude honako Onura Publikoko Mendi hauetan larreratzeko: 199. Mendi Garaiak edo Toloño, 188. Las Rasas Erkidegoko mendia, 189. Kontzejuko mendia, 196. Herrera mendia eta 198. Mendiluzia mendia. Betiere gure mendietan larreratzeko egokituta dauden arrazak badira.

25. artikulua. Ahuntz-aziendaren larreratzek martxoaren 26ko Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 46.3. artikuluan ezarritakoa bete beharko du; bai eta, Onura Publikoko Mendien Kudeaketa eta Antolamendu Planak ezarritakoa ere.

26. artikulua. Era berean, ez da baimenduko kirol- edo jolas-instalazio hipikoetakoak diren eta bertako arrazatakoak ez diren ekidoak larrean ibiltzea.

VII. KAPITULUA. APROBETXAMENDURAKO ZONA EZ-BAIMENDUAK

27. artikulua. Debekaturik dago abereak sartzea hesiz inguratuta edo mugarrituta dagoen gunetara, horren zergatia zeinahi dela ere.

28. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren aholkuei jarraiki, Udalak mugak aprobetxamenduei jarri ahal izango dizkie; baldin eta zuhaitzietan eta beste baliabide batzuetan, hala nola uretan, kalteak antzematen baditu.

VIII. KAPITULUA. ZERGA-OINARRIA ETA APROBETXAMENDU KUOTAK

29. artikulua. Karga-oinarrria aprobetxamendurako baimena duen jabe bakoitzaren abelburu kopurua izango da.

30. artikulua. Hona ekitaldi ekonomiko bakoitzean aplika daitezkeen kuotak:

AZIENDA-ESPEZIEA	KUOTA BAKARRA ABELBURUKO ETA URTEKO
Ardi-azienda	2,76 euro
Asto-azienda	11,20 euro
Mando-azienda	11,20 euro
Behi-azienda	14,00 euro
Zaldi-azienda	17,97 euro

Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko Udal Korporazioak urtero berrikusi ahal izango ditu Adierazitako kuotak.

IX. KAPITULUA. SORTZAPENA ETA KUOTAK ORDAINTZEA

31. artikulua. Ordenantza honetako tasa lehendabizikoz eta behin bakarrik sortuko da, aurreko urtean, eta betiere abereak aprobetxamendurako erabiliko diren mendietara eraman baino lehen; hau da, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak aginduzko baimena ematen duenean.

X. KAPITULUA. ARAU HAUSTEAK

32. artikulua. Honako arau-hauste hauek aurreikusten dira Urizaharrako Udalak zehapena jartzeko duen ahalmena erabiliz, betiere Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren VII. Kapituluaren xedatutakoaren arabera Arabako Foru Aldundiak aplika ditzakeenak alde batera utzi gabe:

a) Larreratzeko eta larreen aprobetxamendurako indarrean dagoen egutegitik kanpoko egunetan abereak sartzea honako Onura Publikoko Mendi hauetan: 199. Mendi Garaiak edo Toloño, 188. Las Rasas Erkidegoko mendia, 189. Kontzejuko mendia, 196. Herrera mendia eta 198. Mendiluzia mendia.

b) Abereek identifikaziorik ez izatea edo behar bezala identifikaturik ez egotea, ordenantza honetan jasotakoaren arabera.

c) Abeltzaintza-ekipamenduak eta azpiegiturak behar ez bezala eta baimenik gabe erabiltzea.

d) Abeltzaintzako aprobetxamendurako ezarritako kuotak ez ordaintzea.

e) Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan jasotako gainerako arau haustek.

Arau hauste horiek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 69. eta 70. artikuluek xedatutakoaren arabera.

33. artikulua. Honako Onura Publikoko Mendietan dauden identifikatu gabeko abelburuak jabe gabetzat hartu ahalko dira: 199. Mendi Garaiak edo Toloño, 188. Las Rasas Erkidegoko mendia, 189. Kontzejuko mendia, 196. Herrera mendia eta 198. Mendiluzia mendia.

Gainera, Arabako Foru Aldundiko Mendi Sailak berak edo abelburu horiek haren gain hartuko dituen erakundeak atzeman eta menditik kendu ahalko dituzte; edo, bestela, 30 egunez zainduko dituen gordailuzaina izendatuko du. Epe horretan, abereak jabearen eskura egongo dira,azienda horri buruzko agiriak aurkeztu eta sortutako gastuak eta kalteak ordaindu ondoren, halakorik bada. Gastu horien parte izango da, halaber, kasuan kasuko espedientearen tramitazioak sortzen dituen kostuen zatia.

Jarri beharreko zehapena gorabehera, animaliak epe horretan erreklamatzeko ez badira, udalak besterendu ahal izango ditu gastuak ordaintzeko, eta soberakina abeltzaintza-garapenerako gastuetarako erabili ahal izango du.

Era berean, bazkarako eskubiderik ez duten identifikatutako abereak ere kendu egingo dira, eta jabeek ordaindu beharko dituzte mantentze-gastuak eta eragindako kalteak, dagokion zehapena gorabehera. Azienda hori erretiratzeko, jabeak 30 egun izango ditu, edo udalak behar diren neurriak hartuko ditu.

XI. KAPITULUA. ZEHAPENAK

34. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren zaintza-lanak alde batera utzi gabe, Peñacerrada-Uri-zaharreko Udalak bere esku dituen baliabide guztiak erabiliko ditu ordenantza hau betearazteko, eta irregularitasunen berri emango dio Aldundiari.

35. artikulua. Aurreko kapituluan jasotako arau-hausteez isun hauek izango dituzte zehapen:

- Arau-hauste arinak: 30,00 – 250,00 euro bitarteko isuna.
- Arau-hauste larriak: 251,00 - 1.000,00 euro bitarteko isuna.
- Arau-hauste oso larriak: 1.001,00 – 10.000,00 euro bitarteko isuna.

36. artikulua. Jabe den erakundeak, bestelako tramiterik gabe, udal jabetzako mendietan ezarritako epetik kanpora dagoen baimendutako eta/edo baimendu gabeko abelburuak kendu ahal izateko eskubidea dauka. Dena den, 32. artikuluan xedatutakoak izapidetu aurretik, abereen jabeari jakinaraziko zaio arau-haustea. Jakinarazten zaionetik aurrera jabeak hogeita lau ordu izango ditu abereak, inongo zigorrik gabe, biltzeko.

37. artikulua. Nahita edo behar ez bezala erabiltzeagatik azpiegiturak hondatzen dituenak, dagokion isunaz gain, eragindako kalteak eta galerak ere ordaindu beharko ditu.

38. artikulua. Larreen aprobetxamendurako baimena bertan behera utzi ahal izango da kalte-ordainik jasotzeko eta kuota itzultzeko eskubiderik gabe. Bazkatzeko eskubide hori hiru alditan ukatu ahal izango da, gehienez ere, eta kontuan hartuko dira ondokoak: ordenantza zein neurritan bete ez duen, zenbat isun dituen ordaindu gabe eta zenbat arau-hauste larri egin dituen. Azken horiek ezin izango dira bi baino gehiago izan.

XII. KAPITULUA. ORDAINKETAK ETA ZEHAPENAK EZARTZEA

39. artikulua. Abereak erretiratzeko abisua jaso eta egun bateko epean arazoa konpontzeko bitartekorik jartzen ez bada, udalak egingo du, eta Arabako Foru Aldundiari jakinaraziko dio.

40. artikulua. Ordenantza hau betetzen ez bada, dagokion zehapen-espediente irekiko da, interesatuari entzunaldia emango zaio eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeari eta gainerako araudi aplikagarriari lotuko zaio.

41. artikulua. Administrazio-bidean irmoa den ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hamabost eguneko epean isuna ordaintzen ez bada, premiamendu-bidez eskatu ahal izango da. Halaber, epe horretatik aurrera, kalte-galerak ordaintzeko errekerimenduak premiamendu-bidez eskatuko dira.

42. artikulua. Peñacerrada-Urizaharreko Udalak ezartzen dituen zehapenek ez dute zerikusirik Arabako Foru Aldundiak gaiaren gainean duen zehapen-ahalmenarekin, martxoaren 26ko Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 70. artikuluan arautu bezala.

XIII. KAPITULUA. AZKEN XEDAPENA

LEHENENGOA.

Ordenantza honek jasotzen ez duen guztiari dagokionez, kontuan hartuko da Arabako Lurralde Historikoko Mendiak arautzen dituen 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, ezarritakoa eta gainerako indarreko lege xedapenak.

BIGARRENA.

Ordenantza hau ALHAOn argitaratzen denean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du, harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.

Peñacerrada-Urizaharrean, 2023ko abenduaren 5an

Alkatea

JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO